



**KARTEL  
LEHIAKETA  
OLENTZERO**

**ARANGURENGO  
IBARRA  
2022**

# ARANGUREN IBARREKO OLENTZERORAKO KARTELEN LEHIAKETA - 2022

Beste urte batez, 2022ko abenduaren 24ean, Olentzero eta Maridomingi Aranguren Ibarra etorriko dira. Etorrera horren berri emateko, Aranguren Ibarreko Euskara Zerbitzuak eta Mutiloako Irulegi eta San Pedro Ipek, Irulegi Euskara Taldearekin batera kartelen lehiaketa deialdia egin dute.

## **OINARRIAK:**

**1.- Parte hartzaileak:** Bi ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 1-6. mailako gela guztiek parte hartu ahalko dute, irakasle batek gidatuta.

**2.- Mailak:** lehiaketa bi mailatan banatzen da:

1. Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. maila bitarteko gelak.
2. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako gelak.

**3.- Gaia Olentzero eta Maridomingirena** izango da, **estiloa** eta **teknika** berriz, **librea**, eta kolorez egin daiteke. Lanek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute, eta ez dira inola ere beste lehiaketatan aurkeztuak edo beste artistaren baten lan baten kopia edo plagioa izango, ezta beste edozein formatan publikatutako kartel, margo, eta abarrena ere.

**4.-** Gela bakoitzak gehienez 5 lan aurkeztu ahalko ditu, beti 2022ko Olentzero eta Maridomingiri buruzkoak. Lan bakoitzean honako **idazkuna** agertu beharko da, taldeak nahi duen eran:

***Olentzero y Maridomingi  
24 de diciembre de 2022  
Olentzero eta Maridomingi  
2022ko abenduaren 24***

**5.- Aurkezpena:** Lanak lema batekin aurkeztuko dira. Beste gutun-azal itxi batean gelaren datuak sartuko dira: ikastetxea, maila, taldea, irakaslearen izena eta parte hartzeko lema. Gutun-azalaren kanpoko aldean, soilik lema agertuko da, letra larriz, parte hartzailea nor den jakitea ahalbidetzen duen inolako aipamenik gabe. Taldea identifikatu dezakeenik duen lanik ez da onartuko.

**6.-** Lanak **aurkezteko epea abenduaren 13an** bukatuko da, ostirala, 14:00etan. Lanak astelehenetik ostiralera aurkeztu ahalko dira, betiko ordutegietan, honako lekuetan:

· **San Pedro I.P.ko atezaintza** (Mutiloa).

· **Irulegi I.P.ko atezaintza** (Mutiloa).

**7.- Epaimahaia** Arangurengo Ibarreko Udaleko Euskara Zerbitzuak, Irulegi elkarteko kide batek eta Mutiloako San Pedro eta Irulegi IPEk osatua egongo da. Erabakia apelaezina izango da.

Epaimahaiak honakoak hartuko ditu kontuan: kalitatea, teknika, originaltasuna, sormena, eragin bisuala, Olentzero eta Maridomingiren irudia, eta abar.

**8.- Sariak:** 100 € ikasmaterialean.

**9.- 1. Kategorian** aukeratutako lana 2022ko **Mutiloako Olentzeroren** etorrera iragartzeko kartel gisa argitaratuko da.

**10.- 2. Kategorian** aukeratutako lana 2022ko **Aranguren, Labiano eta Taxoaren** Olentzeroren etorrera iragartzeko kartel gisa argitaratuko da.

**11.-** Aurkeztutako lan guztiekin **Erakusketa** egingen da **Aranguren Ibarreko Kultur Etxean**, abenduaren 16tik 29ra.

**12.-** Lanak Aranguren Ibarreko Euskara Zerbitzuaren esku geratuko dira.

**13.-** Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatuko du. Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen edozein egoera, antolakuntzak konponduko du.

#### **Ohar garrantzitsua:**

Kartela egiteko orduan sor daitezkeen egoera praktikoengatik, **lanak era bertikalean aurkeztu**ko dira. Aholkatzen den tamaina DINA-4koa da, edo proportzio hori gordetzen duena.

**\* Antolatzaileak:**

- **Aranguren Ibarreko Udaleko Euskara Zerbitzua.**
- **Irulegi Euskara Taldea**
- **Mutiloako Irulegi I.P.**
- **Mutiloako San Pedro I.P.**



**• Babeslea:**

- **Aranguren Ibarreko Udala.**